


63 lanpostuak: akordiorik gabeko adiskidetze saioa



Atzo, 2024ko akordiotik sortu behar ziren 63 lanpostuen bigarren adiskidetze saioa izan genuen.

Nahiz eta Haurreskolak Partzuergoak lehenengo adiskidetze saioan adostu genituen hainbat puntu bete dituen (HEMEN INFORMAZIO GUZTIA), eta positiboki baloratzen dugun, ezarri zen epe mugara ez dira 63 LEP kontratuak iritsi.

Gogoratu nahi dugu, orain Haurreskolak Partzuergoak Lan hitzarmenaren osteko kudeaketaren aitzakia jarri arren, akordio hau 2024koa da eta LABetik ozen adierazi nahi dugu Administrazioaren utzikeriagatik ez direla lanpostuak garaiz iritsi.

Gaurko adiskidetze saioan ez dizkigute inongo bermerik eman ez baitakigu noiz sinatu eta noiz publikatuko den lan hitzarmena. Gainera, azken hilabeteetan bizitzen ari garen interlokuzio falta eta ondorioz sinatuta egon behar zen PLANTILLAK ESLEITZEKO AKORDIOA gaur gaurkoz ez dela gauzatu ikusita, asko arduratzen gaitu.

Honen guztiagatik, akordiorik ez burutzea eta ondorioz prozesu judizialarekin jarraitzea baloratu dugu 3 sindikatuok osatzen dugun alde sozialak.

Haurreskolak Partzuergoak honako erabakiak hartu ditu eta aktan jasoak geratu dira:

- Sortu diren 63 produkzioagatikako kontratuaK ez direla etengo LEPak sortzen direnean.
- Nahiz eta 63 produkzioagatikako kontratuak jarraitu, 63 LEP sortuko eta hornituko dira.

LABetik lanean jarraitzen dugu adostutako guztia bete dadin eta Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari eskatzen diogu behar besteko baliabide pertsonala jar ditzan, Haurreskolek ematen duten hezkuntza kalitatea bermatzeko.